

# Urrüstói, Atharrátze, Líginàga edo zubereraren egiazko doiñuez

(Urrüstói, Atharrátze, Líginàga or the  
authentic intonations in the suletine Basque)

Peillen, Txomin\*  
 5 chemin d'Arantzeta  
 F-64100 Bayonne

\* Euskaltzain osoa  
 Eusko Ikaskuntza

---

*Anton Abbadiaaren arbasoen hizkuntza zen zubereraren fonetikaz, fonologiaz, eta azentuaz ohar batzuk egin nahi nituzke, ahalik eta euskalki horretaz idatzetan eta erakasten diren "okerrak" zuzendua izan ditezen. Halaber lantxo honetan erakutsi nahi nuke eztela ez "egiazko" euskal fonetikarik, ez eta euskalki bat fonetikaz euskara hobean denik, denek kanpoko eraginak, barneko berrikuntzak eta antzinako altxorrok gorde ditugulako.*

*Giltz-Hitzak: Kontsonante aspiratuak. Sudurkariak. Mailegatu eta ez mailegatu hotsak.*

*Por medio del presente trabajo quisiera presentar algunas notas sobre fonética, fonología y acento del suletino, idioma de Anton Abbadia, a fin de corregir algunos "errores" que sobre este dialecto del euskara se escriben y aún se enseñan. También quisiera mostrar que no existe una "auténtica" fonética vasca, ni tampoco dialecto alguno que debido a la fonética sea un euskara mejor, puesto que todos hemos conservado influencias exteriores, renovaciones internas y tesoros del pasado.*

*Palabras Clave: Acento tónico. Consonantes aspiradas. Nasales. Fonemas prestados y no prestados.*

*Je désirerais présenter, au moyen ce travail, quelques notes sur la phonétique, la phonologie et l'accent souletin, langue de Anton Abbadia, afin de corriger quelques "erreurs" qui sont écrites et encore enseignées sur ce dialecte. J'aimerais également démontrer qu'il n'existe pas une "authentique" phonétique basque, ni aucun dialecte qui soit un euskera meilleur grâce à la phonétique, car nous avons tous conservé des influences extérieures, des rénovations internes et des trésors du passé.*

*Mots Clés: Consonnes aspirées. Nasales. Phonèmes empruntés et non empruntés. Accent tonique.*

Zuberera zelarik Anton Abbadiaren aita -mintzaira eta nihaurek sakonkienik ezagutzen dudan ama-euskalkia, hari buruz dabiltzan iritzi oker batzu zuzendu nahi nituzke. Oroitarazi nahi nuke, batzuk, okerrean dabiltzala zubereraren deskribapenean eta haren bilakeraren ikertzean, eta irakastean. Jadanik erakutsi dudan bezala gaskoinaren eragina dago euskalki hortan, besteetan bezainbeste, eta ez gehiago: irakasle frangok eragina dagoenean ez daku-sate, eta ez dagoenean dakusate. Bakotzak behar luke bere lehotik euskararen etxea argitu eta hortarako aurre-iriztiak baztertu.

Nire ama-euskalkiaren ezagutza ez delakotz aski, Ian honen egiteko grabatu ditudan etno-testu askeez baliatu naiz; berriemaileak, Maider Artigau Elixagarai larrañtarsa, Allande Artigau Elixagarai ligiarra, Junes Casenave santagraztarra, Maddalen Carricaburu, gamearsa Eliane Hegiaphal mauletarsa, Joanes Intxauspe unduraintarra, eta Davant Zabalaineko etxe-kojaun larrebiltarra izan ditut beraz Basabürüko eta Pettiarreko lekukotasunekin nator.

## FONETIKA

### Barnesaren eragin ziurra zubereraren fonetikan

Linguistikan segur izaten ahal den neurrian ü: /y/ barnesetik hartu dugu Zuberoan. Noiz ez dakigu eta gaskoieraz, diotenez, XIV. mendean agertua. Eztabada dago keltiko sustraietik Proventzan agertua, ala hizkuntza germanikoetatik ala frantsesetik hartua? Fonema hori euskalaren iparmuga guzian dago, Zuberoan, Amikuzen, baita ez du aspaldi Bardozeraino; muga horrek gaskoin jatorria salatzen du. Alabaina ager daiteke hortik kanpo Nafarroan Albisuko goinafarreraz <tu>, <tü> entzuten delako "partitü", <ü> üskea hitzetan N.Moutardek grabatu dituen ikerketetan, halaber Hazparnen "ua"<sup>k</sup> eman du "üä". Halere euskalkietako /y/ horiek eztira berdinak.

Naski /y/ hori berrikuntza eta maileguz hartua, baina aldatu izan da, ezpaita barnesez bezala ahoskatzen, <ü> eta <ö> arteko moduan baizik, ezpainak atzeanago: bü(r)ü, égün, éhün, hürün, hün (muin, fuin), sü, zü Hitzelkartu batean ongi ikusten da <u> dela zaharrena: orain lür dioguna lehen lur izan dela, ezen «lur jauzi» bati, lúrtat erraten baitugu.

- eü,<eö> diptongo mailegatua da baita Biarnoko okzitanierari mailegatu hitzetan agertzen ere: apéü (ihizi deigarri), balhéü (garatu gabeko fruta), drapéü/ bandera, karréü (lisa burdina), erréüs (muzin), gréütü (nazkatu), iséü/ iséü (inseiu (L.N.) saio G.)

- <ú> hitzen azkenean. Beste fonetikazko salbuespenak baditugu zubereraz, ikusiko dugunez,: hitz bat ez da sekulan "u" batekin bukatzen, <ü> batekin baizik, non ez den barnes mailegua: .arrazú, falkú, fanfarrú, frikú, galú, salú eta beste. Halere "u" asko salbatu dira,.hitzen barrenean,<o>tik etorritako "u" ak hitzen barne eta hastapenetan, eta Benito Lertxundik ez kantatu arren: nur, nuiz, nun, hun, gízun/ gizon, ezkúntü, uhú(r)e; baita <r><s> baten aizolbean gorde direnak: ikhúsi, hur (ur) baina "hür" avellana"fonologiazko bereizketa.). Halaber <au> begiratu da: góaur, háur, háur, intzáur, láu, niháu. Hiru kasutan lau (zenbakia), hau (erakuslea), niháu (izenordain indartua) lehenago <r> baten aixolbean zeudelako «haur», «laur», «nihaur» XVIII. menderaino). \*<aü>ek ezpadu «r» baten aterpea <ai> ematen du: áizo (auzo), gái (gau) (baina gaur) gáiza (gauza).

Hamar bat hitzetan agertzen da /Z/ ahobilpuntako, apikoalbeolarra delakoa erdal maileguetan: aíSa, kháSy, káSik, JéSüs. eta holako. Iduri luke gaskoinaren eraginaz dela hartu, fonema hori, ordea, baina barnesez, lekuka, hitzen hastapenean baizik ez da agertzen jorn, «egun» jo «ni» eta holakoetan eta zubereraz hitzen barnean.

Halaber leherkarietan eta sudurkari baten aurrean kasu bakan batzuetan /Z /(frantsesezko zeda) agertzen da ahobi bizkarurreko, predorsoalbeolarra: arrazú, ézne, gázna, aizína, kozína, zurratú hitzetan. Baztango lapurtarrean, ézne eta gázna entzun daiteke berdin. Azken bi fonema horiek gutti agertzen dira zubereraz, baina amikuzeraz ere entzuten dira, baina ez kasu berdinetan.

## Bearnesetik heldu eztirenak

**1.** Batzuk diote Iparraldean hitzen hasieran “egiazko euskara garbiak eztuela afrikaturik» Hegaoaldean spañoletik hartuak direla. Agian kutsatua izan dena <x> frikitibuen galtzea hitzen hastapenean lizateke.(ikus zuri/txuri eta holakoak). Erraten dugunean hitzen hasieran afrikatuak daudela zubereraz erantzuten digute bearnesetik datorzela, baina auzoko bearnesez eztago afrikaturik hitzen hasieran. (Comminges-eraino Euskal herritik berrehun bat kilometrotara joan behar da hitzen hasieran afrikatu horren aurkitzeko gaskoinez). Gure ghettotik atera baginte ikus genezake hitzen hastapeneko afrikatuak, Europa sartaldeko hizkuntza guzietan daudela, frantsesean, gaskoin gehienean eta...manexean(nafar-lapurdierez) izan ezik. Ez nuke errango, euskalki birjina horien mintzatzale horien ez mintzeko, frantsesaren edo gaskoinaren eragina denik: beraz hitzen hasierako afrikatuak zahartasun bat da eta galteza berritasuna lizateke.

Zubererak <tz> /<tx> sistema bere konotazio desberdinekin osorik begiratu du, Iparraldeko beste euskalkietan ondakin gisa, txarra eta tzarra hitzak geratzen direlarik, baita tipi eta ttipi hitzetan afrikatuaren lehen osagaia. Hain zuzen hitzen hasieran <x> ordez <tt> agertzen da –tiki hitzean bezala– Orthez aldeko bearsen mintzairan (chibau, thibau i.e. ttibau ahozkatua)

Zuberotar sistemak ordea, erregularitasuna darakusa, ezen zú(r)i k ez dezake «txuri» eman xú(r)i baizik, (zérri/xérri, zókho/xókho, zílo/ xiło) halaber txipigarria txákür denaz gain handigarria tzákür da .Hola Zuberoako üskarak baditu arau zuzeneko zerrendak, txarra/ tzarra bezalakoak dira: txapásta/tzapásta, txapel/ tzapel, txar/ tzar, txárramiko/ tzárramiko, tzimíko/ tximíko, tximíno/ tzimíno, tximínia/ tzimínia, txó(r)i/ tzó(r)i.beti konotazio ñabardurekin.

**2.** Mende honetan “manex” mintzaira guzietan “rr” doblea ahosapaietik dardaraz emana galtzen ari da, zintzurondokoak lekua hartuz . Zuberotarrek ez bide dugu bearsen eraginaz gorde, ezen hegoaldetar gehienen 70 urteez goitiko lapurtar eta benafartar gehienen ahoan oraindik entzuten delako. Eskolak ez ote digu sartu, frantses eta bearsen hiritar erreienten “r”berria? Naski ez da Pariseko iduri, baina diakroniak darakusa, frantsesaren eraginaz dela sortu. Beraz Zuberoan “r” bikuna arkaismoa da. Zoritzarrez Jean Louis Davant kontatu zidan gisa, ikastolako haurrak beren zuberotarretik euskara batura pasatzerakoan lehen mailako azken urtean, <r> bakuna, manex <rr> doblea edo txarrenik dena “X/ bezala ahozkatzen erakasten omen diente. Azken urteetan ere J.B. Coyosek erakutsi bezala hogei urtezpeko zuberotar gazteen artean <rr> bikuna galtzen ari da eta «manexten» edo frantsesen.

**3.** Beste arkaismo nabarmena, apur bat galtzen ari dena, bokal sudurkariena da, â, ê, ï, ô, û, ü Badakigu holako sistema, auzoko erronkieraz bazegoela zubereraren berdinekoa. Euskararen beste muturrean bizkaieraz egon dela, portugesez badagoela eta ingelesez ere bai. Sistema hori ez dago bearsenez nahiz, bizpahirur hitzen azkenean silaba sudurkaridun baten lekuan ager daiteken “pâ” ogi. Euskararen fonetika deskribapena egiten denean ez litezke sudurkari horiek ahantzi behar ezen beste euskalkietako bokal arteko <h> eta bokal arteko <n/ñ> erekin lotuak baitira eta hitzen azkenetan beste euskalkiek galduztako <n> baten lekuko, ardû > ardantégi, ardanói.

4. <J> zubereraz, apurbat frantsesaren “j” antzekoa, aurresabaikaria da (Jaun), baina ez dugu bearnesetik hartu zeren inguruko bearnesek, hitzen hasieran, bustiduraz ematen baitute./’Z/ gorago ikusi dugun bezala (Aspe) edo/ yoda baten gisa manexez bezala (Nabarrenkoxe). Hortan Hualde oker dago bearnesarekin lotzen duelarik fonema hori bearne-saren barnean eta hitzen hasieran bizkaieraz ezagutzen diren <j>ren ahoskerazko aldaera gehienak aurki genetzazkelako eta Zuberoatik urrun antzeko zerbait.

Erran behar da fonema berdina leku desberdin eta urrunetan agertzen dela, erran nahi baita zubereraz entzuten dena bakarrik Comminges-eko mendietan Zuberoa herritik berrehun kilometrotan, Itsasaldeko gaskoinean berdin ehun kilometrotan entzuten «omen» zen, halaber Bizkaian Baionatik ehun eta piko kilometrotan. Beraz barne bilakaera dago, eta ez kontaktotik hartua, hor erronkarietaz <x> emango duena eta bizkaieraz ere batzutan <dx> eta bestean zuberoako üskararen antzeko fonema.

5. Kontsonante aspiratuak. Arkaismo nabarmenena eta Ekiadeko beste azpieuskalkietan abantxu osorik gordetzen dena kontsonante (leherkari eta likido) haspiratuena da. Holako sistemarik ez dago Europa mendebalde honetan, Ekiadko Europan errusieraz, Kaukasoko hizkuntzetan eta batikbat tziganoz agertzen da. Uste dut sistema hori leherkarietan <b>, <d>, <g> ozentze ospetsua baino eta ozentzearen teoriaren kontra zaharrago eta gureago dela. Zubereraz osoki begiratua dira, kh, lh, nh, ph, rh, th. delakoak.

Ikusiko dugu mailegu zaharretan honela euskalduntzen direla kontsonanteak zubereraz, manexen ozentzeak bazter utzirik..Batzutan fonologia balorea daukate r/rh l/lh pareek hala nola éri «gaixorik», érhi «atz»álha (bazka) / ala. Eri-ren kasuan bikoitztasuna gainditzen da orain «r» bakuna erori ondoren, lehena <ei> «gaixo»ebakiz eta bigarrena <ehi> «atz».

6. Euskaldunago ote haspiraziorik gabe? Zübereraz latinetikako mailegu askotan eztugu «euskarra oneko» araua segitzen ozentze ordez haspiratuz. Manex erakasle batek erakasten du, “bearnesaren eraginaz zuberotarrek “corpus” hitza eztuela “gorputz” bilakatu baina “korpitz” Hau ezta egia: zübereraz “khórpit” delako eta dakidanez <kh>, <g> bezain euskalduna delako; gainera, nahi duenean gure euskalkiak badaki <g> a ren erabiltzen: gáiza, gaztélü, gélha, góldi, górdi.

Beste kasu batean latinezko altare(m) delakoaren”t”a gorde lukete zuberotarrek «latina-ren morointzaz», zoritzarrez, zuberotarrek ez dugu “\*altare” esaten altháre baizik Gure filologoek, zuberotarrezko, omen den“\*altare”forma hori “influence béarnaise” dela idazten jarraituko ote dute? Bigarren arrazoina doa haren ondorioen aurka eta bearnesaren fonetika baldin balekite, zergatik ahaztu behar luke -alt- eztela posible okzitanieraz hasieratik -aut- eman duelako. (Adibide ederrak berek aurki letzakete, Angeluko Halzketa, Hausquette baita gaskoinduz bilakatu, paper zaharretan Altzagarai desbateatu zuten gaskoinek Auciet Suson, eta salbatu da frantsesek ere Altzái diotelako) Bestalde kontsonante haspiraturik eztagoenean ondotik, zubererak ozentzen du beste guzien gisa áldi, aldikátü, áldiz, erranaz, baina álthe.

Atzikien banaketan badakigu euskalki batzutan l- eta n- ren ondotik <t>, <d> ozentzen dutela eta batzuk uste dute euskararen arau bakar eta hoberena dela, baina zuberera zaharrean adibidez -tus atzikia -thü eman zuen: *herthü, helthü, honthü, irakhurthü* eta beste, oraindik “sárthü”, górtihü”, “hértihü” “lóthü” diogu. Ekiadeko beste azpieuskalkietan ere holakorrik bazen eta bada, Lopezen liburua XVIII. mendean holakoz betea da: *gorthü* baita *maithia, gincothiar, guiristhinoak, eithia, besthia, hauthian, therminhu.* Zertan <t>, <th> baino euskaldunago nork frogatuko? Dakidana da auzo hizkuntzetan, gaztelaniaz eta gaskoinez “euskarra onaren” diren lege batzuk betetzen dituztela manexek bezala, eta kontsonante haspiratu horik ez ezagutzen.

Gure euskalkian "n"ren ondotik sarritan ozentzerik ez dago kontsonante haspiratuak geratzen zirelako halaxe hanthü zen esaten ozentzerik gabe eta berriz händi, úndo ozendurik. Halaber húnthü, kundenáthü Manexek ez al dute erraten kantu eta ez \* kandu, kantoin ez \* kandoin, kintale ez \*kindale, lantoki ez \* landoki eta beste Non dago beharrezko "egiazko euskal fonetika latin hizkuntzen gorraozentzen dituenak»?

Gero Hizkuntz Atlasak jadanik darakusa erdiko- literatur euskalkitan eraiki fonetika sistema standarra ez dela batere erabiliena, gehiago erraten dela k(h)urutz, "gurutze" baino eta "korputz" Bizkaiatik eta Zuberoatik kanpo leku askotan biltzen dela. Naski ugaritasun horren erditan euskara idatzia forma bat hobetsi du; nihaurek ere besterik ez darabilat, baina bes-teak txarrak edo ez «hain euskaldunak» direnik ez dezakegu erran.

Zübereraz jadanik erakutsi dudan gisa, hirur aterabide eskaini dira, hirur fonetika latin eta erromantzezko maileguekin Aintzinatean, mailegu zaharrenetan ozentzea agertzen da, culter-ek góldi eman du eta pace(m) ek báke. Bigarren garai batean maileguetako leherkariak ez dira gehiago hitzen hasieran, ozentzen baina haspiratzen, euskal sistema bereizi-bereizian, hots orduan phárka, pháka, phézü, thenóre, thermáñü, thí(r)a, kháka, khário, khéiñü, khürütxe Hirurgarren garaian maileguetako leherkariak diren bezala hartzen dira: kal-báriko kanpíx, karakóil, kárga, kárgü, kárta, katolíko, kólpe, kósta, kúntre, palázio, paseátü, pürgató(r)io, tí(r)o, tabák, tumáte, Eskaintzen dizuedan fonetika bireraikuntza horrekin agerian ezarri nahi nuke Eugenio Coseriuk *Sincronía y diacronía* liburuan 1958.an idatzia

*«y en efecto también en sus resultados históricos la ley fonética es valedera en la medida en que una lengua es sistemática» y «mono-sistemática» lo que no se da nunca exactamente»*

7. Gure üskaran arkaismoa da euskararen bustidura guziak gorde dituela (Kaukasoko hizkuntzak askoren gisakoak) Manexez behintzat "d" bustia "dd" ia galdua dago eta non nahi Maddi eta Maddalen, Mayi eta Mayalen bilakatu dira frantsesaren eraginaz eta zubereraz ez. Bestalde "l" bustia gorde dugu, XVII.mendeko lapurtar zaharren gisa, ollo, Pello, erabiltzen dugu eta ez oilo eta Peyo. Batzutan bustidura horrez urrunegi joan gara jatorrizko hitza galduz: éllho, hüllan eta hólli erraten da eta «erho», «húrran» eta «hori» galdu ditugu.

Manexen gisa eta hegoaldeko euskaldun gazte askoren alderantziz <t>bustia "tt" gorde dugu, eta ez <tx> bilakatu atzikietan. Guretzako Erramunto ulergarria da oraino eta Pierre Lotiren Ramuntxo españolkeria bat: bai hori bai, "Aitor" izenaren gisa denborak euskaldundu duen erabilera baina ez itxuran. (Ohargarria da bustidura guzi horiek gaskoinez ere ematen direla, baina Europa ekialdeko hizkuntzetan ere).

Diptongo batzuen eta "r" bakunaren ezabatzeak.eta beste berrikuntzak

Hitzen eta morfemen laburkuntza hortan gipuzkerak ere bokal arteko "r"bakun asko gal-tzen ditu "eor" "eagotzi" " ee ", "hie " eta beste Gure euskalkian galtze hori hurbil orokorra da bokal artekoan eta galtzeko bideetan dago ondotik haspiratua daukanean erhi/ehi, arhan/arán; hitz"ainitzen azkenetan, bíhar, élhür, hár, húr, hór, lür, nûr, südûr zur hitzetan entzuten da, (okzitano maileguetan galtzen) baita fonologia arrazoinengatik ere hua erakus-lea eta hura edariaren bereizteko. Horregatik literaturazko zubereran eta pastoraletan ager-ten diren bokal arteko <r> bakunen ahozkatzen ez dakite non idaztean ez dituzten behar ez den lekuaren jartzen "jun", "joran" "zuzenduz. Joera hori ere hitz batzutan euskalki guzietan ematen da, "ere" "<ee/e>" entzuten da.

Inesiboan batikbat zuberera geroago eta gutiago bereizten du, mendín eta mendian, -ia-ezabatuz holaxen -a- rekin bezala -ua-rekin gipuzkeraren bidetik, «joan» eta «zuan» en

ordez /jun/ sin/ entzuten da zubereraz XX. mende hon(en hasieratik eta /xun/ /sun/ gipuzkeraz, kanpuan eta kanpun ez da lehen bezala bereizten. Lekuka ere azken urteetan hitzen barnean -ia- eta -ie- <i> tan laburtu da azolagabeko ahozkeran abtenbatek abiatü -ren ordez abitü erraten du, Berrietxe-n ordez, Berritx. Baina diptongoen kasu horiek ezin daitezke eman orokor bezala ezpaitira oraino zuberera osoari hedatu.

Beti Hegoaldearekin partekatuz bilakaera hori errotazismoaren galera nabarmentzen da *úskaraz* guttienik, hamaseigarren mendeaz gerotzik, hizkuntza herrikoian *beste eta ostegün* irakurtzen baita; lapurtar klasikoaren ereduz, idazle batzuk Oihenarte lehenik eta Egiategi imitatuz, “berze” idazten dute, baina hainbeste, ostegun eta holako hitzelkartu zaharrak eskapatzenten zaizkie. Zubereraz ordea “rtz” errotasizmoa galtzen bada, <rz> eta <rx> ena ez: ürzo, erxe erraten delako, bestalde euskalki guztieta bezala, *hartz*, *hortz* eta holako beste batzu beren hortan gelditzenten dira.

Beraz azkenean bere arkaismo eta maileguetik zubererak fonetika sistema oso aberatsa altxatu du hamabi bokalekin eta hogeita bederatzi kontsonantekin. Besteek bezala egin du, besteetan galdu diren fonema zahar batzu gorde, fonema berriak mailegatu, eta auzo euskalkietan elkarrekiko diren fonema batzu begiratu. Ailitz zuzenketa hau azkena, zuberera eta bearnesa eztakitenek zernahi idatz eta erakats ez dezaten.

## ZUBERERAREN AZENTUAK

Grabaketatik abiatuz. Jean Larrasquet eta René Lafon –ez gerotzik ez da Hualde-ren eta Gaminderen salbuespenak kendurik– lan haundirik egin Iparraldean, gai hortaz, zubereraren gaitzespena bizirik diraulako. Egin behar denean oroz lehen grabatu behar da mintzazailea eta hortik abiatu. Baina hautuak egin behar dira. Hitzen azentua nahi bada hitzegi gisako paradigmak eskatu behar dira. eta orduan Innaki Gamindek aitortu bezala hitzegileak mintzaria jasoa edo antzekoa emango dizu zuberotarra ezpazara. Perpausaren azentua nahi bada, hizketa aske batean grabatu behar da. Neronek etno-testuak erabili ditut sintagmaztat.

Gero jakin behar da kantuetan musikaren azentuak agintzen duela eta pastoraletan ezin dela azenturik eskatu grabaketan konturatuko baita, silaba guziak indar berdinarekin ematen direla, hots azentu bereizirkirik gabe.

Intxauspe saiatu zen San Mateuren ebanjelioa «hitz bakoitzaren azentuaren» ezartzen, eskatu zitzaison legez, baina aintzeten hitz asko gabe daude, ezen irakurtzearekin belarriba «perpausaren azentua» heldu zitzaiolako. Ez dirudi XX.mendean *úskara* hala aldatu denik. Nahaskeriak beste iturrittoa zeukan, hots harridura edo garantzia emateko azentu adierazkorra idazten baitu. Halere Intxausperena da ediren dudan azentudun idazki xuxenena eta berriemaileekin zuzenetsi dudana.

### *Hitz bakunen, eratorrien eta elkartuen azentuaz*

Hitzak banan banan paradigmaz hartuz eta bi silaba guttienik daukatela indar eta goratasun azentu aldakor bat dago euskalki honetan. Azentu hori fonemaren gainean jartzen da, ez hitzean. Zuberoan bertan Basabürüan azentu horrek bere luzetasuna gorde du, ia Petrarrean entzuten eztena. Orokorki Europa mendebaldeko hizkuntza gehienetan arauak jarraitzen ditu, eta hegoaldean baino hurbilago, katalan, gaztelania, portugesena. Mendebaldeko mintzairak gehienetan gisa, (ingelera, alemanera eta beste) oxitonoak, paroxitonoak eta proparoxitonoak ditu oraingo zubererak, lapurtar herrikoiak bezala.

Azentu hori, ordea, ez da lapurdieraren edota erronkarieraren leku berean (Pierre d'Urtek lapurdierarako idazten zuen eta Hugo Schuchardt-ek ere bere lapurtar testuetan;

berriki Iñaki Gaminderen grabaketek lapurdierazko hitzegileekin erakutsi digute Nicole Moutardek aipatzen eztuen azentu tonikoa badela euskalki hortan). Zuberotarrek ez dute idatzi nahi. Oihenartek zein zen zion. Hizkuntza gehienetan salbuespenen kasuak markatzen dira eta besteentzat arauak ikasten, beraz behin azalduz geroz ez dut ikusten zergatik behar genukean zuberotarrek gure idazkietan azentu idazten hasi ikerlariei atsegin emateko, hiztegietan beharbada bai gertatu zaidan bezala. Gainera, orduan, beste lau azentu sistema dagoelarik euskaraz beste euskalkiek ere beren idazki guzietan idatzi behar lituzkete.

## A. Paroxitonoak

Ugariena da: *Bokalekin* euskal hitzetan, azkenaren aitzineko silaban erortzen da: arráno, átzo, béro, édo, érto, gógo, lépho, ólho óso, ótso, úndo, zózo (üsü, ütsü, áma, elíza, ützi, ídi, étxe, ére Europako hizkuntza gehienetan bezala, frantsesean eta «baxe-nabartarrez» izan ezik

Kontsonante eta erdi-kontsonante ainitz ediren daiteke üskaraz hitzen hastapenean -<r> eta <v> izan ezik, halaber euskarazko eztiren izen berezietan naski <q><r><v>, <w> irakur daitezke, Quercy, Ronald Reagan, Van Beeethoven, Wyoming, Yorkshire. Hitzen azkenean ordea oso mugatua dago kontsonanteen agerpena.: euskal hitzetan hamahiru: bi sudurkari <ñ>, <n> likidoetan, <l>, <ll>, <r>, xistukari eta afrikatu guziak <s/ts>, <x/tx>, <z/tz>, atzizkietan eta mailegutan bi leherkari baizik <k> eta <t>.

Naski euskal ez diren izenak, Bibliakoetan batikbat eta besteetan ere zubererak errespetatzen ditu eta orduan zernahi kontsonante ager daiteke hitzen azkenean <b> Aminadáb, <d> Obéd, <g> Behring, Wyoming, <h> Nazareth, <m> Roboám, Abrahám, Amsterdám, <p> Giap, <q> Lacq, <v> Kiev <w> New- York

Batzutan herrien izenak euskaldundu dira, hala zubereraz Jerúsaléme, Bethléème, Davít, Jakóbe, Kapharnaúme erabili izan da. Abusua da erraea zubereraz hitz bat <m> batekin buka daitekela \*maidam, adibidea emanaz Hualdekin egin duen gisa, ezen gaizki entzuna du edo gaizki kopiatura du, Zuberoan ezta iñon entzuten –atzerritar jende izenez kanpo– «m» hori azkenean, baina <n> bat. Maidan «zur gaizki landu, edo gizon traketsa» bearnesezko «maidan» hitza delako.

Gaskoinaren alderantziz, zubererazko euskal hitzak kontsonantez bukatzen direnean paroxitonoak dira. Huna frogatako hitz arrunt askoren zerrenda luzea, naski gorago aipatu baldintzak betetzen dituztenak alegia hamahirur kontsonante baizik ezpaita agertzen hitzen azkenean zubereraz:

áhal	bótin	í dor	óldar
áhazt	búlhar	í gel	ómen
áihen	bühlür	ígor	ópets
áher	bützan	ízotz	órein
áhotz	ébats	kháratx	órkhatz
áithor	édan	kónkor	ósin
álkhar	égon	lágün	pégar
áphür	égün	láphitz	ságár
á(r)otz	éman	láratz	sáihets
árrain	ésküz	láster	sárkor
árrutz	ézpain	léhen	sáthor
áztal	górratz	méhar	s'úhar
bárdin	gízen	náfar	s'üdür
békhan	gízon	náhas	txápel

bélhain	gógor	nígar	txakhür
bélhar	góthor	ñábar	txíñkor
bézain	górotz	ñáphür	txíntxil
bídar	hággin	ódol	tzírtzil
bíhar	háitzür	ógen	úrdin
bílaiz	hánitx	óhart	ülhün
bíxkor	háritx	óhil	xóthen
bízar	hégal	óhitz	xóthil
bízkar	húgü(n)	óhol	zábal
bóhor	hüllan	óihal	zábor
bórdel	hürrün	óihan	zílhar
bórthitz	íbar	ókher	z'üzen

### Gaztelaniatik maileguak

Horiek naski *üskararen* arau arrunten alderantziz begiratzen dira: alemán, español, eta jatorrizko arauak errespetatuz: Ame(r)ikáno, Beljikáno, Errusiáno, Italiáno, armáda, pagáno, publikáno, purgató(r)io, soldádo, ténplo, tróno. Eta maileguekin gerta ohi den gisa atzizki eta deklinabideek ez dute azentua lekuz aldatzen bigarren bat gaineratzen izatekotan: Ame(r)ikánuentako, pagánoentako, ténplolakúan

### Azentuaren lekuz aldatzea

Zubererak “gízon” paroxitono hitza deklinatu bezala erabiltzen badu, hartakotz “gizónbat”, gizóna bezala morfema loturik idazten dute eskola gutti dutenek: arrazoinez, azentua lekuz aldatzen da paroxitono jarrai dezan morfemak, halaber -rekin, batekin ere bai: berdin hándi, handia eta handíbat erraten da. Gero bide beretik hitz eratorri horrek deklinabiderik hartzan badu, “azentu nagusia” lekuz aldatuko da beti morfema luzatu arau hala handibatéki, händibatekilan, händibatekilàngo. Urrunago aztertuko ditugu horiek.

Beraz gehienetan morfemak du azentua hartzen, batzutan, hala nola maileguetan hitzak beste hizkuntzakoa gordetzen du eta beste bat, erantsitako atzizkian ezartzen.

-gía: edangiá, egongiá, etzangiá, hargiá, helgiá, ibilgiá, jangiá, jargiá, jelkhigia, jingia, joangiá, laketgiá, logiá, sargiá hots, oinarrizko aditz gehienekin

-gúa atzizkia beti oxitona da eta «a»organikoa du zubereraz, ofizioa edo afizioa adierazteko aphezgúa, bekaizgúa, gaixkigilegúa, hargingúa, jakilegúa (testigantza), maiastü(r)ügoa (zургингоа), oskigilegúa (запатагинтza) Absolutoarekin azentua fonologikoki sasi- oxitona da. eta diptongoa aldatzen da aphezgoá, bekaizgoá, gaixkilegoá, maiastü(r)ügoá, oskigilegoá.

## B. Oinarrizko oxitonoak

### B.1. Atzizki oxitonoak

- áts: cf -ail «apurbat hola» berdáts, gorráts, holliáts

- dánt/ lánt (gaitzespenezko): arrogánt, brigánt, kargüdánt, ogendánt, tratalánt eta -ent: akzidént, errejént, manént, obediént, plazént, prudént, zimént.

- é(r) atzizki gaskoina. Atzizki horrek eztu deusik ikusteko datibuarekin. Azken < r> galten du atzizkiak gaskoinetik zuberera pasatzean mintzatutik hartua baita ez idatzitik. Gaitzespenezko atzizki bezala erabiltzen da euskal hitzekin: klakazé/elhekári (hitzontzi), landjé(r), mardailé, salhaté, gezürté/ gezürti. Halaber ofizio izenetan batzutan -ér erabiltzen da

okzitanieraz, eta zubereraz <e>: bulandjé (okin), menüsé (zurgin). Bereizten da ordea «kauter» maskaradetako okxitano bertzgina eta «bertzegile» lanpide arrunta

- ganát, oxitonoa, harenganát, (baina harengána)

- kór/-ór atzizkia. adibidez: ahalkór (lotsati), ahazkór, erorkór, gaitzikór, gibelkór, hauskór, ilhorkór, jeloskór, leherkór, lohikór, khexakór (asarrekor), lotsór(beldurti) sineskór, üdürikór/ mesfidakór, gaitzespen osoko konotaziorik izan gabe, maiz, akats bat, huts bat seinatzen duen aditz batekin lotua dator. Bitxi da gaitzespena ukatzen dutenek ustelkór adibidea ematen dutela, Adorez hiztegietan Ez ote da konkor eta mozkor hitzen kutsaduraz atzizkia halakatu «garri» atzizkiari lekua utziz, ezen mugimendu aditzekin ezpaitu konotazio txarrik: harkór, igikór, jinkór, joankor, sarkór. Berdin gertatu da khoi/oi gaitzespeneko atzizkia-rekin eta bestalde -kari onespenezkoari buruz (cf ardüká(r)i eta ardúkhói)

- khói: urrunago ikusiko dugun diptongoen arauarekin lotzen da atzizki honen oxitonotsuna eta lehen bokalean hartzen du azentua

- ñí atzizki txipigarria txipiñí, inkarüñí (likido apurbat)

- (r)át oxitonoa, etxe(r)át, kanko(r)át; azentu hori beharbada okxitano maileguen eraginez etorri zitekean, pergút, arnegát, ematxót bezalakotan, baina zergatik ez da gertatzen "bat"en kasua, ezen zuberotar guti eskolatuak beti "gizónbat" idazten baitu, gizona bezala eta ahozkatzen gizónbat.paroxitonoz.eta gainera «t» batekin urrentzen den euskal hitz erro bakarra delako (gaskoinez oxitono dira kontsonante azkendun hitzak: apilát, cabernéth, carrét, carriòt, colièr, arrazùn, gascòn. Gaskoinetikako maileguetan bide hori jarraitzen du zubererak)

- (t)ár, -liár, -tiár herritarrenak eta zaletasunenak oxitonoak dira: atharraztár, ligiár, exkeritiár, ezteiliár. Beste atzizki aldizkakoa -kál oxitonoa da: aldikál, egünkál, urthekál (baina hitz bakunetan, gorago ikusi bezala, ematen dira: áphal, áhal, áhül, áztal, áskal, bázkal, óhol, xáhal eta holako azentua ezinezko da gaskoinez "l" eta "ll"ez bukatzen diren hitz bakanak ("-al" ek "-au" eman baitu)oxitonoak direlako.

- «txót» txipigarria, apurbat gaitzespenezko: ematxót, gixót, moxolót

- ús: irús, handiús, kuriús, loriús, malerús. Atzizki ez denean okzitanieratik hartu bernús, espús euskal arau arruntaren alderantziz jatorrizko azentua begiratzen dute.

## B.2. Diptongoz bukatzen diren hitzak: oxitono

Gaztelaniaz bezala azken silaban erortzen da azentua holako euskal hitzetan: ardanói, eztéi, emaztegái, errói, hamaséi, diptongo berriezin «r» bakuna eroriz ere agéri / agéi, aihari / aihái, etxáro/ etxáu, háro / háu. Maileguzko hitzetan berdin: erridáu, apéu, balhéü Naski diptongo jarritzeko diptongoaren lehen bolalean dago azentua.

Diptongoa <s> edo <n><l> batez jarraitua bada arauak balio du, hala - bíit, -áiil, -óil, -dói diptongodunek hitz elkartua edo eratorria oxitono bilatzen dutela: ezdéus, gorháil, ha(r)ixtói, izeidói, lexardói, sordéis, pantzóil, zerbait, zurpháil. Erran nahi baita:

Halatan ere diptongo gehi <ñ> sudurkaria denean bi ebakera daude: árraiñ/arráiñ ártzaiñ/artzaiñ, íguïñ/ igúïñ, máhaiñ/maháiñ, órbeïñ/ orbéïñ, z'ühaiñ / züháiñ (zuhaitz) Joskerak agintzen du hor eta paroxitono da hitza formula batean, edo erranaira batean sartzen denean, arráiñ bat, arráiñ hori bena árraiñ-saltzále, artzáñ bat, eta ártzaiñ egónik. Diptongo azkendun hitzetako salbuespenak hauexek dira: hógei eta hógeien eratorriak, berrógei, hirutanhógei Hor beharbada lehen bi silaba zeuden edo «h» bat tartean.

### B.3. "és"aren salbuespna: oxitona

Euskalki guzietan eta auzo penintsulako mintzairia guzietan, halaber okzitanieraz, gorago ikusi arauaren kontra hiritartasunaren "és"/"éx" maileguia hitzaren azkenean oxitona da: baionés, bordelés, eskosés, frantsés, irlandés, manéx/manéz eta aphéz, Joanés Halatan ere bada, zubereraz ere erabiliago den -ar /-tar hautua erromatar garaietik ezaguna.

-és,-ix,-etx, -as batekin bukatzen diren okzitanierazko eta gaztelaniazko maileguek arau berdina jarraitzen dute: arrés, enpés, errenbés, esprés, inkás, kanpíx(patar, aldapatsu), kodétx (teilatu ertz mota bat) intrés/ entres (interes), mantétx (tximinea mantel) mukanás (sudurzapi), trabatétx (teilatu zurtaian)

### B.4. Jende izenen hipokoristiko salbuespenen nahaskeria

Katalína, Katíxa izenak araua jarraitzen du, baina Katalín oxitona da, halaber gaskoinetik mailegatu Katí txipigarria. Madaléna paroxitono arrunta da, baina Madalén oxitono salbuespna, halaber moldean egin oxitonoak. Sistema berdinean María-k Maddía-k Máia eman du, baina Maddí oxitona eta Lüxía-k Lüxi. Hemen irudi luke "a" erortzen denean azentua bokal berdinean egoten dela zeren jatorrizkoak "a"rik eztuenean azentua ezpaita lekuz aldatzen hala nola Grázi, Gráxi, eta Xáxi.

### B.5. Aditz jokatuetako oxitono salbuespenak

Gehienak diptongoek eraginak dira eta bi daudenean, bigarren diptongoak azentu ahu-lagoa hartzen du: déizièt (dizuet), dióziét (diozute), déitaiè(didate), záiziè, eztezazién, etzi-teién, zéitzoén (zizkioten), zitié/zité (zaitezte),baina zíte (zaitez) fonologiazko bereizketaz. Bereizketa berdina egiten da azentuaren bidez, eta bokal arteko <r> ahozkatzen eztelako sarthü zién (zuten) eta sarthü zí(r)en. Beste itxura batzu laburtzeaz etorriak lirateke: dezén (dezaten), düzié (duzute), eztezazién (eztezazuten), lezén (lezaten). Halaxe ote zoazté, zauzté (zagozte) eta holakoak? Bereiz daiteke zubereraz ipar-ekialdekoan bigarren azentuaren tokia, déizièt en ordez, déiziet entzuten baita Barkoxen.

### B.6. Okzitanieratik maileguak

Azken <n> galtzearekin ún > ü sudurkariarekin. Gaskoineratik hartu hitzek hizkuntza hor-tako bokala eta itxura gordetzen dute erdizka; bestalde azentua ere, zuberotar arauen kontra: arrazú (arrazoin), buxú (buxoin), falkú (falkoin), gaskú (gaskoin), kantú (kantoin) sarSú (sasoin).eta orduan "ù" hori sudurkaria da eta gaskonezko <un/on> baten lekuan. Horiek zer ikusia dute euskal hitzetan gertatuarekin ardû, (\*ardun edo \*ardano batetik) harzku (\* harzkon batetik)(Ohargarria da azentu horiek gaskoin ereduaz ez dutela betetzen osoki ezen gaskonez eta bearnesez, paroxitonoak diren "u"rekin bukatzen diren hitzak /ácu/, "astoa" /Bácku/ "euskalduna"/kácu/, "haritza" baina denbora berean jatorrizko maileguak gaskoinez-un" ekin bukatzen direla erran behar da eta kontsonante batekin bukatzen den hitz oro hizkuntza hor-tan oxitona dela, beraz, /arrazún/ /kantún/, sasún/, halaber gaztelaniaz razón, cantón, sazón)

-ín > í: bedezí eta bedezináje), billabarkí (birabarkin), brodakí (borcegui) eskarpí, kosí (kusú), kokí.(okzitanieraz: medecín, birabarquín, cosín, escarpín, kokín)

<n> galtze hori euskal hitzetan gerta daiteke, jadanik 1650 jakes Belakoak hügün hitzaren azkenean ez du ematen «n» baina ü surdukaria honela idatziz: hügü

Beste salbuespna da okzitanieratik hartu hitzak <t> batekin bukatzen direnak

arnegát, bailét / mithil, bonét (txapel), binbalét (ginbaleta), bukét(lore sorta), burrát / trago, kamenét (armariu) kanibét (ganibeta), maladrét / thórpe, baita despít, enüxént /zózo, plazént / agrada

### B.7. Salbuespen faltsuak: sasi-oxitonoak

Egunorozko mintzairan, eta pastorala bazter utzirik, silaba bat jana, ezabatua izan daiteke entzuleari irudiariaziz gaizki ahozkatua eta azentuatura dela: híi (híri), üngú (üngürü) Zuberoako Pettarrean(P.) diptongoen ezabapenak holako oxitonoak ematen ditu, oraindik Basabürüan(B) osoki hedatu eztirenak: -i+an, -u+an, -i+ak, -u+ak

mendín (P) / mendían(B), kanpún(P)/ kanpúan(B), itsasún (P)/ itsasúan B).

semík(P) / semíak(B), mentík(P)/ mentíak(B), otsúk(P)/ otsúak, itsasúk(P)/ itsasúak(B).

- a+ an. A rekin bukatzen diren latinezko maileguekin ainitzetan gertatzen da fenomeno bitxi hau, inesiboan itxuraz hitza arau guztien alderantziz oxitono bilakatzea:

erresúma, baina erresumán, elíza baina elizán, khanbéra baina khanberán, maxéla, baina maxelán. Ene ustez, beharbada hor, bi <a> ahoskatu izan da\* erresumáan eta\* elizáan

-ér pluralezko datibua aditz edo izenekin (aintziña -éri zitekena) oxitonoa da:

debriér, di(r)enér, haurrér, ikuslér, i(r)akaslér, zaudenér, zordünér.

baina kasu izena edo fonema <-o>, <-u>, <-i> bukatzen bada paroxitonoak dira arrazúer, esküinekóer, etxekóer, soldadúer, mendier, ebatsíer

Halaber -éen pluralezko genitiboa?

Lagunén entzuten lagünéen ote zen? Gabén, gabéen ote zen? Amén, améen?

ezen kasu berdinean kanpokúen, hi(r)í en entzuten delako irudi luke -ue- eta -ie- diptongo bezala entzunak direla

### B.8. Bibliako izenak edo predikarien azentu finkoa

Oxitono dira kontsonantez bukatzen gehienak (Intxausperen arabera)

Aminadáb, Azór, Eleazar (gaztelaniaz bezala), baina naski gaztelaniazko eta üskarazko araukekin Heródes, Jésüs. baina azken kasu hortan -gaztelaniaren alderantziz - acentu finkoaz Jésusek, Jésuseki(n), berdin gertatzen da Sáintü hitzarekin, Izpirítü Sáintü, Híri Sáintia, Híri Sáintiala. hemen beharbada diptongoaren erakarpena dago hala nola gáinti, gáintiala

-a rekin urrentzen diren hitzak mugagabe eta mugatuaren bereizteko ebakera darabila zubererak

áma mugagabeean amá bilakatzen da mugatuan <a> luze bat azkenean, agian <aa> idatzi zitekan. Halaber bereizten dugu, hutsik egin gabe: zeren lótsa zira? eta zeren lotsá düzü? Arrazoinez, K. Mixtelenaren *Lenguas y Ptolenguas* liburuan 1990 an argitaratuan irakur daiteke

«también salta a la vista sin embargo que siempre hay abundantes excepciones en el sentido práctico de la palabra, hechos que no se ajustan al esquema general y que han de ser explicados por razones especiales buscadas y halladas con mayor o menor fortuna».

Arauez batzutan, nik ere, kausitu dut eta kausituko dut salbuespenen sasian zerbaiten ebakitzea.

## C. Azentu bikuna eta proparoxitonoak

### C.1. Hitz luzeegi denean

Nahiz Mitxelenak idatzi duen ezin zela zubereraz proparoxitonorik izan: hitz bakunetan ezpadaude, morfemeta eta hitz elkartuetan argi badaude, joan den mendean <r>bakuna galdu baino lehen bazeuden (ik. Intxauspe) eta batzuk jarraitzen dute

Batzutan “hitza bokal batez” hasten denean indar pixka bat ematen zaio lehenari, bigarrrena baino indartsukiago, ozenkiago ahoskatuz: ázkenian, átsülüütöki, éhortzetaliär, érrabiatia, éstakürü, óphilñábar Hitza “kontsonante batekin” hasten denean, ezta eraso azenturik, baina bi izan daitezke bata hitzarekin bestea deklinabideak ekarria halaxen góse paroxitonoak gósetürük ematen du, baina egári paroxitonoak silaba bat gehiago duelako lehen azentu proparoxitona egárritürük emango du.

Halere proparoxitono gehienak hitz luzeetan, hitz elkartuetan edo morfema eratorrietai ikusten dira.

### C2. Pluralezko deklinabideekin (bakoizkian paroxitono edo oxitono)

Atziki horiekin guziekin bezala azentua, atzizkiaren aitzineko silaban ipintzen da.

- éta(r)at: baxéta(r)at (amildegietarat), bidéta(r)at, etxéeta(r)at, ezpainéta(r)at, ezteiétarat, ge(r)uéta(r)at (geroago), mendiéta(r)at, oihanéta(r)at (baina jakina singularrean etxerát, bidealát, lanealát, süialát)

- éta(r)ik: belhainéta(r)ik, etxééta(r)ik, hi(r)íeta(r)ik, oihanéta(r)ik. etxáueta(r)ik Azken hitz hortan, arau arruntetik kanko, azentua erakartzen du diptongoak Gero bakoizkian, belhainétik, etxáuetik, oihanétik)

(Lehenbiziko bi adibideetan «<r> bakunaren erortzeak fenomenoa estaltzen du, baina ondoko atzizkietan holako<r>rik eztagoenaz gain ageri da proparoxitonoek jarraitzen dutela bizirik zubereraz)

- etako: alhorrétako, etxéetako, ilhérritako, kharríktako, ordokiétako
- etan: zum(b)áitetan, bortietan, mèndietan (?)

### C3. - aren genitiboa aditzetan eta izenetan

- n-a(r)en: déna(r)en, zéna(r)en, litekéna(r)en
- a(r)en: emaztéa(r)en, legárra(r)en, azkéna(r)en

### C4. Aditzen eta izen aditzen atzizkiak.

- 'naren: déna(r)en, zéna(r)en
- 'türük: silaba bateko aditzekin proparoxitono: gáizturik, múztürük, hárturik, sórthürik, húntürük, héltürük (baina hiru silabekin paroxitono hüllantürük, urthikírik, gaitzítürük, harahunakatürük).
- '(t)üko eta1 (t)üren: aurreko arau berdina eta adibide berdinak gáiztuko, úztuko, hártuko / hártüren (baina, sendotüren hüllantuko, urthikíko).
- 'titik: gáintitik, haráintitik (hango aldetik), hunáintitik (hemengo aldetik)

### C.5. aditz jokatuan, azentu finkoak sortuak

Badirudi nonbait diptongo baten izateak azentu fitsu hori eskatzen duela hala nola

déiot, déiok, déiozü, déio, déiogu, déiozie, déioe; halaber beste datibuarerek eta pluraleko komunztadurarekin, déiet, déiek, déié. /..eta déitzièt, déitzièk, déitzié ....)Kasu hortan trip-tongoaren lehen bokalak hartzen du ebakera.

Ohar 1. Hemeretzigarren mendearen aitzinetik «r» bakuna bazegoen eta déreit eta hola-ko ziren aditz horien itxurak.

Ohar. 2. Benetan eta egiaz azentu finkatua da ezen menpezko atzizkiekin ere ezpaita aldatzen: déiolarik, déitzienian, déitziela(r)ik, záitziela(r)ik

#### C.6. Silaba bateko hitzak eratortzen direnean

Halaxen azentua ezta lekuz aldatzen eta paroxitonoak eta proparoxitonoak sortzen:

: húr, húrian (urean), húreti(uretik), húrarekilàndo, húrztatü (ureztatu)

Hitz berdina ordea elkarteka batean sartzean azentua lekuz aldatzen da

: hurúndo, hurundúa.

Beste adibideak: lür, lürriàla baina lühikhá(r)e, lühidórra.

Morfemeen proparoxitonnia Zuberoako üskara euskalkian zaharkidetza erakusten du, ezen Joan Coromines erakutsi bezala «De toponimia vasca y vasco-románica .in FLV Iruinea, 1973 299-319. orr. aurre-euskararen «protobasque» delakoan proparoxitonoak ematen zirelako eta geroztik erromanizatu izenen darakustelako.

Halaber urte berean gai hortaz Jacques Allières idatzi zuen FLV. «Basque et latin vulgaire» delakoan berdin dio. Hector Iglesias horien lanak iruzkintzean ongi dio «okzitanierazko hizketa guziek, gaskoina barne, gisa hortako azentuazioari aiher dutelako, (euskaratik etorri) proparoxitonen laburtzea azken bokalaren ezabatzearekin egin da» (ik

«Le toponyme Chiberta». *Bulletin du musée Basque*, 147 zbk. Bayonne, 1996 43-64 orr.)

#### D. Perpausen azentua

Mintzoaren harian, perpusean hitzen azentu frango galtzen da. Perpaus laburrak bi azentu baditu edo batere Halaxen hórra, híza, d'üzü`hitzekin perpaus hau eman dezaket.

Horra híza? (azentu gabe)

Horra déa? (azentu batekin)

Perpaus luzeak bizpalau eduki letzazke: átzo, ibíli, Paúen, n'üzü, amáreki, góizan. hitze-kin hunako esaldia osa dezakezu:

Atzo góizan amáreki Pauen ibili n'üzü (hiru azentu, sei hitzeken)

Berriz hartzen baditugu hitz horiek: bat, hándi, emázte, ikhúsi, etxéra, diát. Honekako per-pausa entzunen da Barkoixen:

Emazte handíbat ikhusi diát etxera héltzen.(handíbat eta héltzen ozenkixeago emanak eta esalldian hiru azenturekin)

Santa Grazin eta Basabürüan hau entzunen da:

Emázte handíbat ikhusi diát etxera héltzen (bost azentuekin)

## Musika azentua, intonazioa?

Zuberotar gehienetan azentua indar azentua izateaz kanpo goratasun azentua da, baina Larrasquet'ek deitzen duen musika azentua haren mota bat da herri batean baizik entzuten ez dena garbiki Kostatarrek kaskarrotetan entzuten dute musika hori, baita Zuberoan Santa Grazin baizik nahiz eta hori nahiz frantsesez, nahiz euskaraz, berdin Gehienetan perpausaren azkenaren aitzineko silaba nota goragoan ematen da, eta silaba goratzen da:

khusi

áitzo i/

dit

Holako zerbait aztertu zuen Orixek Huitziko euskaran Azentu horrek galera dezakete indar azentu batekin bat eginaz, batikbat galderazko perpausetan:

khus

ibili hintzona i/

/ten?

Azentu hori denbora zaharretarik horra zaigu, ene ustez, ezen hiztegi eta aditz aldetik herri horrek ongi gorde dituelako osagai zahar asko.

## E. Asperdura eta harridura azentuak

Mintzairal guzien gisa euskarak harridura, agintaldia edo asperdura hitzaren azpimarratzeko azentua lehen silaban dakar Halaxen uler litzke batzutan doinu arruntean azkenian eta ehunétan dena holako kasu bereizietan ázkenian! eta éhunetan! eta ékharzü! bezalakoak.

## F. Abestietako azentua

Kantuetan melodiaren jatorrizko azentuak agindu dezake eta hitzen edo perpausen arauetatik kanpo agertzen dira Hona nola abesten duten zuberotarrek "Bortian Ahuzki":

Bórtian Ahuzkí

Hur húnak osokí

Néeskatila ejérrak

han díra agerí.

Azentu arauetan kanpo daude Bórtian, Ahuzkí, osokí, néeskatila eta agerí. Bakarrik mintzatuaren arauetan daude húnak, ejérrak, díra.

Beraz euskalki hunen azentua kantu grabatu batekin egin nahi lukeanak ezin dezake erran zein den mintzatuarena. Kasu berdinean gaude "Txori errésiñola" abestiarekin, erriman:

Txori errésiñola üdan da khántari (azentu arrunta khantári)

zeren ordian bétu kanpoan jáanhari (azentu arrunta janhári)

## G. Pastoraletako azentua

Nahi baduzu azentu gabeko egiazko euskara bakarra entzun, pastoralaren testu arruntaren entzutea aski duzu, ezen pastoralaren psalmodiatzen denean, silaba bakoitzak makila ukaldi batez indar berdinarekin azpimarratzen baitute «türkek» eta «khristiek». Beraz pastoralaren testu grabatutik azentua ateratzea, gatu batir arraultz errunareztea bezala da, gatuak beste nonbaitik ekarritakoa emango dizu. Bakarrik satanak mintzatzen dira azentua erabiliz.. Azentuaren ezabatze horiek eta beharbada beste euskalkietan ere sermoiaren, predikuen ahozkatze homogenotik letozkealako susmoa badut.

## ONDORIOZ

Bearnesez kutsatutako euskalkia dela zuberera diotenei, uste dut erakutsi diedala, hola-koen errateko lehenik bearnesa ikasi behar dela, ezen zubereraz agertzen diren kontsonante batzu ezpaitira bearnesez agertzen eta uste ez direnak bearnesetik hartuak direnak, aldi bakoitz, dozena bat hitzetan agertzen direla. Bokaletan /y/ da mailegu nagusia. Erakutsi bide dugu “manex” dialektoek badituztela «barne aldaketaz» gaskoinaren arau batzu berdinak, kontsonante aspiratuengen eta hasierako afrikatuengen galtzeaz (azken hau frantsesarekin parteka-tuz).

Jadanik erakutsi dugu maileguen zahartasunaren arabera hirur fonetika bide hartu dituela zubererak, zaharrenetan leherkariak ez aspiratuz (báke, góldé), geroago beti haspiratuz (phárka, pháka, phéna, phézü, phórrü, photére) eta azken mendeetan ez haspiratuz ez eta gortuz edota ozenduz, ziren bezala hartuz.(palázio, permís, polüzióné)

Euskara standard-ean eta erdialdeko euskalkietan maiz, baina ez beti, latinetikako, eta erromantzetikako hitzak ozentzen dituzte, zubererak batzutan eta besteetan ez, baina ez da mintzaira erromanikoen menpean nolanahika idatzi den bezala, ezen «gortzen» eztuenean “haspiratzen” baitu eta baitzuen benetako euskal kontsonateak erabiliz: héltü, álthe baina úndo, aldi eta góldé erraten ere bai.

Uste dut eta itxaroten dut zuberotarrek urte askotan hola mintzatuko direla, nahiz nik bezala onartuko duten, beren euskalkian ari eztirenean, batasunaren izanean erdiko euskalkietako fonetika. Onartzen dugun erdibidea ez da “euskara onaren” eredu bakarra, baina beharrezko hizkuntza bat arautzen denean.

Azentuaren ikertzeko grabaketetarik abiatu behar da. Eta orduan lau azentu desberdin daude, hitz soilena, mintzatzean perpausetan, kantatu perpausetan eta pastoraletan psalmodiatuetan, azken honetan ez delarik batere. Azentua dela eta gure etxeko zuberotarren mintzaira horrek ez ditu bearnesaren azentu arauak, kasuen erditan, batere jarraitzen, españolarenak hobeki. Gero lapurdiera izan ezik –frantsesak bezala eta bakarrik biek Europa mendebaldean– paroxitonoen erabilera galdu dute, be-nafarreraz mintzatzen diren gehienek Iparraldean. Morfemak du hartzen zubereraz azentua, aldiz hitzak lapurdieraz horregatik azken euskalki hortan esdruxula edo proparoxitono aunitz badago.

Zubereraz azentuak badu, hegoaldeko euskalkietan bezala, fonologia egiteko bat Semantika bereizkuntzak egiteko ezpaitu beti balio “mintzatuaren” kontestuak, izenak dionez bezala testua berriz irakur ditekelako: áma eta amá, Errégek mugagabearen eta erregék mugatu pluralaren bereizteko eta beste ainitz holako azentua lekuz alda litake, arau arrunta-en aurka.

Ikerketa honek ekarri lezakean gogoeta saila lizateke euskal fonetika tipología bakar batera laburtzera –standard aren beharrez– egiazko euskara mintzatutik urrentzen gaituela. Tipología horrek «egiazko euskararenak» oztopo egiten du mintzatzaileen harmena zein den ezagutzeko.

Nahiz beharrezko den mintzairaren corpusaren deskribaketa osoaren egitea, baita bestalde sorkuntza arau gaien ikertza, horiek ez dute argitzen entzuleek nola ematen eta entzuten dituzten hizkuntzaren soinuak ezen bakoitzaren jakituriatik berauren erabileraaino arte handia dagoen.

Jakina euskara standard batek, fonetika eta idazkera bakar bat behar dituela eta erdiko euskalkiak hautatu direla hortarako. Euskara standar batean idazten dudanean fonetika hori darabilat nik ere, baina ezin daiteke idatzi eta erakatsi besteak «euskal gaitzo» «euskara

txar» direla, ezen euskalki guziek kanpoan mailegatu baititugu doinuak eta berbak hizkuntza bizi guziek dagiten legez errealitatea da zubererak bearnes mintzairari eta manex euskalkiek gaskoin mintzatuari mailegatu ditugula eta gure mendean, manex gazte gehienek frantsesarri hartu diotela fonetika.

Azkenik fonologiaren gorabeherak lerrotasunean aurkezteak edota bakarrik hiztegiaren paradigmaz beren burdinezko jantzietai mintzatuaren gain fenomeno diren doinua(azentua, intonazioa eta barne fenomeno diren luze laburteak bantzertzen ditu.

Gure saiakera honetan hukitu ditugu luzatzeak edo laburteak ekartzen dituen sasi-oxitonoen eta paroxitonoen kasuak, baita diptongoekin hizkera laisterrean gertatzen den ezabatzea. Hor ere hitzegile bakoitzak haukera bat badu, zubereraz bezala, hizkntza guztietan, kagunekin hizketa laburtua hitzak erdi janaz, ezagunenik apur bat zainduagoa, eta ezezagunenik «clear speech» aski hurbil hobekienik eta osoenik ahoskatu mintzaira. Maiz deskribitu egin dena euskaraz izan da ahoskera zaindua, erran nahi baita predikuetan eta pastoraletan entzuten den azentu toniko gabekoa.

Beste saiakera batean «Expression phonologique de l'ironie» delakoan FLV.en Iruñean 1974. ean argitaratu zidaten hartan aztertzen nuen nolako aldaketak gertatzen ziren bokaletan eta kontsonanteetan, azken hauk sudurkarituz, perpaus bat ironiarekin errepikatzen denean. Hain zuzen onespeneko hitz mailegatuetan ere zubereraz «m», «b» bilakatzen dela-ko eta alderantziz gaitzespenezkoetan «b», «m» bilakatzen.

Honekin ez dut denaren argitzeko handinahirik izan. Badakit <m> batzutan <p> herri berdinean eta etxe berdinean aldaerak aurki ditezkela baina «manex mugan» izan ezik Zuberoan, arau orokor batzuk direla. Ezadostasunak, bestelakotasunaak heldu dira Basaburuan eta Pettarrean fonetika berdin-berdina ez delako eta azken honetan behintzat diptongoen ezabatzeak hitzen laburteak ugariago direlako Uste dut erakutsi dudala, asko dagoela egiteko mintzatuari buruz eta idatzian agertzen ez den aberastasun frango dagoela mintzatzailareen eskumenean.

## RÉSUMÉ

Ce texte vise à redresser certaines erreurs et certaines fausses certitudes scientifiques sur la pureté plus grande d'un dialecte par rapport à un autre. Sans décrire la totalité de la phonétique souletine, ce que nous avons fait par ailleurs, nous nous limitons à étudier les points sur lesquels les chercheurs ont trébuché: l'on n'a pas vu toujours où se trouvaient les béarnismes et qu'on les a vus là où ils n'étaient pas en souletin Avant d'affirmer une influence béarnaise il faudrait connaître la phonétique du parler occitan en contact avec le souletin

## Phonétique et phonologie

Je pense avoir démontré que si le dialecte souletin a emprunté une voyelle au gascon le <ü> une diphtongue <eü>, un <u> final exceptionnel dans kantú (angle), Deux consonnes surtout souletines la fricative /Z/ dans aizina, gazna pourrait provenir de l'occitan, mais la fricative voisée /Z/ qui apparaît dans quelques mots d'emprunts, khasü, aisa, n'existe dans les parlers voisins qu'à l'initiale et jamais en souletin dans cette position Ce phonème s'entende également dans le sous-dialecte mixain de Basse-Navarre. La prépalatale transcrive <j> apparaît en des points, aussi éloignés que la Biscaye, la Soule et le Comminges: elle est probablement fruit d'une évolution locale d'une fricative ou d'une afrikéenne ancienne, puisqu'il n'existe aucun contact géographique ou historique entre ces divers lieux.

Les dialectes navarrais et labourdins qui se croient purs d'occitanismes et de gallicismes présentent dans leur phonétique et dans leur accent, une troublante coïncidence avec les langues romanes: parmi toutes les langues d'Europe occidentale, avec le français et le gascon, ces dialectes ont perdu les afriquées à l'initiale, que le souletin a conservé intégralement aussi bien "le tz" que le "tx" très employés, avec régularité et en alternance.

Le souletin est le dialecte qui a le mieux conservé les consonnes aspirées originales du basque et préfère le plus souvent aspirer les occlusives sourdes des langues latines, plutôt que de les sonoriser. Toutefois on observe trois étapes, une de sonorisation ancienne d'emprunts latins antiques, (báke = pace, golde= culter) puis une phase d'occlusives sourdes aspirées pour le latin écclesiastique (phárka: parcere) et enfin une phase de respect pour les occlusives d'origine dans les emprunts récents (palázio)

Ce dialecte a conservé et développé un système complet de voyelles nasales, que d'autres dialectes ont pratiqué et qui apparaissent après la perte d'un <n> terminal arrazú ou de part et d'autre d'un «<h> intervocalique: mihí Ces voyelles nasales devaient se justifier et favoriser la formation des mots à des époques où la langue était plus pauvre en consonnes. Une langue qui n'a qu'une voyelle peut inversement développer un système de soixante consonnes.

Le parler souletin, comme tous les parlers du monde, offre des possibilités de réalisations phonétiques différentes suivant que les locuteurs se connaissent très bien et ont tendance à raccourcir les mots dans un débit très rapides, ou sont des connaissances du même dialecte et articulent alors, un peu mieux, enfin ont en face d'eux un interlocuteur d'un autre dialecte et tentent d'articuler, parfois, plus clairement. La pratique de ce «*clear speech*» est sensible dans tout le basque en style oratoire sans accent tonique; ce même style se pratique dans la psalmodie du théâtre populaire religieux dit «pastorale».

D'autre part nous rappelons qu'un système de modification des voyelles et des consonnes lors d'un traitement ironique d'une phrase imitée est très vivace en souletin et que nous l'avons étudié par ailleurs. («Expression phonologique de l'ironie en haut-souletin,» in *Fontes Linguæ Vasconum Iruñea*, 1979)

L'accent tonique souletin est un accent (de hauteur), d'intensité et de longueur, plus marqué en Haute-Soule et particulièrement net dans la vallée de Sainte-Engrâce où il est en, plus, musical. L'accent tonique de ce dialecte est généralement *paroxytone*, porte sur l'avant dernière syllabe du morphème Cet accent tonique s'éloigne fréquemment du modèle roman occitan béarnais (paroxytones pour des mots ou des morphèmes terminés par des consonnes), Cet accent se rapproche du modèle castillan ou haut-navarrais.

Par contre la disparition des paroxytones est curieusement observée - fait unique en Europe occidentale - en français et dans les parlers dits «manechs» du bas-navarrais oriental et du bas-navarrais occidental, mais pas en labourdin. Cette prononciation «sans accent tonique» d'origine oratoire est posée en norme de la lecture du basque littéraire. Elle a été remise en question au cours du congrès organisé par l'Académie Royale de la Langue basque. sur l'euskara batua à Leioa en 1994

On observe des *oxytones* fréquents (accent sur la dernière syllabe) dans les cas suivants.

: emprunts au gascon, au castillan (finale en -t, en -u, sifflante sonorisée -z, finale en r: suffixes basques: -áts, -er, -giá, - goá -kál, khói, -rát, -ár,-tá, suffixes romans -dánt,-és, txót, é(r)

: les mots contractés dans une prononciation relachée ou par chute du «r» simple intervocalique ou d'une voyelle finale

: les diphongues de suffixes ou de mots en finales

: la chute du "a" d'origine dans les prénoms laissant des voyelles nues oxytones.

Des *proparoxytones* fréquents dans des morphèmes de plus de quatre syllabes; alors dans ces dérivés d'une certaine longueur un ou deux accents secondaires plus faibles peuvent apparaître; les règles de l'accent souletin sont plus proches de celles du castillan et souvent en contradiction avec celles du gascon, sauf à respecter l'accent tonique de ce dernier dans des emprunts.

La présence de ces proparoxytones est un archaïsme, en effet Joan Corominas démontre la présence de tels proparoxytones dans le protobasque et de même Jacques Allières signala le rôle d'une telle accentuation dans le substrat toponymique pyrénéen. En labourdin de Sare ils sont plus fréquents qu'en souletin puisque c'est le mot de base qui tend à conserver un accent fixe quelle que soit la déclinaison, la dérivation ou la suffixation.

La comparaison des deux dialectes montrent que les règles d'accentuation sont différentes mais qu'en labourdin un accent moins marqué qu'en souletin est présent sous toutes formes, oxytone, paroxytone proparoxytone et dans toutes les phrases.

En souletin l'accent peut avoir une valeur phonologique et permettre de distinguer áma: "mère" et amá "la mère" ou Errégek manhatia " mandement royal" de Erregék manhatia " commandé par les Rois" et aussi une valeur expressive en appuyant sur la première syllabe dans l'expression de la surprise, de l'indignation, du commandement.

D'autre part, à partir d'enregistrement on peut distinguer quatre usages de l'accent:

: les mots isolés: de deux syllabes et plus qui ont un accent

: les phrases: où la moitié des mots perdent leur accent.

: les chansons dans lesquelles c'est l'accent musical ou la montée de la mélodie qui accentue le "texte"

: le théâtre de pastorale, dans lequel toutes les syllabes sont prononcées, de manière oratoire, avec la même intensité et martelées d'un même coup de bâton par la plupart des acteurs.

Voilà, simplifiées les formes principales de la phonétique et de l'accent souletin qui sont des mosaïque de sons et d'accents fixes dans les emprunts, latins, espagnols ou gascons et d'accents mobiles dans les mots mieux intégrés ou plus anciennement basques. Globalement cet accent est plus proche du castillan que celui du guipuzcoan et du roncalais.

## BIBLIOGRAFIA

ALLIERES, J.: «Basque et latin vulgaire» in *FLV* 1973., 355-367.

ARTIGOITIA, X.: «Syllable Structure in modern Basque and in protobasque» in *Generative Studies in basque Linguistic*. J. Benjamins Publishing company, Philadelphia, 1993, 263-288.

AZKUE, R.M.: «Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos» in *Euskera* 4. Bilbao, 1931 3-50, - 1932 282-318.

BIRABENT, J.P.: SALLES-LOUSTAU J.: *Memento grammatical du gascon* Ed. Esc. Gaston Febus, Nosauts de Bigorra,Cercle Occitan de Tarba, Pau, 1989.

- CAMPION, A.: *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara*, Baroja, San Sebastian, 1883.
- COSERIU, Eugenio: *Sincronía y diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*, Montevideo, 1958.
- COYOS, J.B.: «Le souletin: un dialecte basque de France en danger?» (Essai) *Laboratoire de Linguistique*, Univ. Paris IV. Paris 1996 (azken urteetako fonetika aldaketak gazteen artean).
- DAVANT, J.L.: «Zuberera zinez eri» in *Argia* 1441 Donostia, 1993 p. 41.
- ETXEBERRIA, L.: *El acento nominal en J. Lizarraga*, Tesina de la Universidad de Deusto, 1974.
- GAMINDE, I.: «Zubereraren azentuaz» *Uztaro Bilbao*, 1995.
- GAMINDE, I.: «Gipuzkoako azentuak» in *FLVIruinea*, 1996.
- GAVEL, H.: «Eléments de phonétique basque» *R/EV XII* Paris, 1920.1-54.
- GROSCLAUDE, M.: *Lo gascon leu e plan*, Ed. omnivox Per Noste, Orthez, 1977.
- HUALDE, J.I.: «Acentos vizcaínos» *ASJU* 23 Donostia 1989, 275-325.orr.
- HUALDE, J.I.: «Euskal azentuaren ingurua» in *ASJU*, 24 Donostia, 1990 699-720 orr;.
- HUALDE, J.I.: «Topics in Souletin Phonology» *Generative studies in basque linguistic* John Benjamins Publishing Company, Philadelphia, 1993, 289-326.
- IGLESIAS, H.: «Le toponyme Chiberta» in *Bulletin du Musée Basque*, 147 Bayonne, 1997 43-64; orr.
- INCHAUSPE: aphézac Jesus-Kristen ebanjelio saintia. Zuberouco uscaralat utzuliric, A. Lamaignère, Bayounan, 1856.
- IRIGOYEN, A.: *Bibliako eta Grezia zaharreko pertsona-izenak*, Euskal hizkuntzaren departamendua, Deusto, Bilbao 1996.
- IRIGOYEN, A.: «Hizuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak» in *Euskera*, Bilbao, 1986 351-359.orr.
- LAFON, R.: «Observations sur la place de l'accent dans quelques formes basques des parlers souleins» in *Mélanges Paul Laumonier*, Paris, 1935, 635-643. orr.
- LAFON, R.: «Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)» in *MisCELÁNEA Homenaje a André Martinet (II)* Univ. de la Laguna, Canarias, 1958, 77-106. orr.
- LAFON, R.: «Sur la voyelle ü en basque» *BSLLVII* Paris, 1962, 83-102 Actes du X. ème Congrès International de Linguistique et Philologie romanes 901-905.orr.
- LAFON, R.: «Contact de langues et apparition d'une nouvelle voyelle: u et ü en basque» .
- LARRASQUET, J.: *Action de l'accent sur l'évolution des consonnes étudiées dans le basque souletin*. ed. Vrin Paris, 1928.
- LARRASQUET, J.: «Phonétique du basque de Larrajá Barcus», in *R/EV* 23. 1932, 153-191.
- LARRASQUET, J.: *Le Basque souletin nord-oriental*, Maisonneuve, Paris, 1934.
- LASPIUR, I.: «Azentu diakritikoa Eibarko Euskaran» *Euskera* 24, Bilbao, 1979, 175-268.
- MITXELENA, L.: *Fonética Histórica Vasca*, *ASJU* Donostia, 1977. 379-425. orr. eta 565-990 orr.
- MITXELENA, L.: «A propos de l'accent basque» *Bulletin de la Société de Linguistique* 53, Paris 1958 204-233.
- MITXELENA, L.: «A note on old Labourdin Accentuation» *ASJU*, 6 110-120.

- MITXELENA, L.: *Sobre historia de la lengua vasca* ASJU 10 Donostia, 1988.
- MITXELENA, L. *Lenguas y protolenguas*, ASJU, Donostia, 1990.
- MOUTARD, N.: «Etude phonologique sur les dialectes basques» in *FLV* 20 zbk. Iruinea, 1975, 141- 190 orr.
- NUÑEZ, L.C.: «Fonología consonántica de un idiolecto del euskera de Zuberoa» *ASJU* X, Donostia, 1976, 153-197.
- PEILLEN, Tx.: «Zuberoako gobernu hizkuntzak eta gure herri hortako euskalkiaren erdal maileguak» *Euskalarien Nazioarteko Ihardunaldiak* 1 Euskaltzaindia, Bilbo, 1981, 405-411.  
«Belako zaldunaren zuberotar hiztegia, XVIII. mendean» in *FLV*. XV 41-42 zbk. Iruinea, 1983, 127-146.orr.  
«Zuberoako euskalkiaren, Basabürüko motaz ohar batzu» in *Euskeria*, XXIX,1. Bilbo, 1984, 249-254.orr.  
*Zuberoako itzal-argiak*. Euskal kultur etxeak, Baiona, 1985.  
«Aintziñako zubereraren aztarna batzuk» in *FLV* Iruinea, 1992.  
«Zubereraren ezaugarriak». *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra* Bilbao, 1992. in *Iker VI*. Bilbao, 1993.  
«Les langues de la Soule» in *Le Pays de Soule*, Izpegi, Baigorri, 1994.
- ROHLFS, G.: *Le gascon: étude de philologie pyrénéenne*, Ed. Marrimpouey, Pau, 1977.
- ROTAETXE, K.: «L'accent basque: Observations et hypothèses» *La Linguistique* 14, 55-77.
- SALABURU, P.: *Batzango euskalkiaren arau fonologikoak*: Fonetika eta Fonologia, Euskal herriko Unibertsitatea, Bilbao, 1984.
- SCHUCHARDT, H.: «Sobre el vascuence de Sara (Labort)» in *Euskeria*, XXXVII (2.aldia) Bilbao, 1983 (Lapurdieraren azentuaz).
- TXILLARDEGI, J.L.: «Ahoskera baturantz» *Ele* 10, Bilbao, 1992, 47-71.
- URKIZU, P.: *Pierre d'Urteren Hiztegia*, Londres 1715, Mundaitz, Donostia 1989.
- URKIZU, P.: *Gramática de la Lengua Vasca*, Cuadernos de la UNED, Madrid, 1996.
- ZUAZO, K.: «Zubereraren sailkapenerako» *ASJU* XXIII Donostia, 1989, 609-650 orr.